

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUN SAILA

Arabako lurralde- Ordezkaritza

Ebazpena, 2025eko maiatzaren 5ekoa, Deskarbonizazioko zuzendariarena, Green Capital Development 147 SLU sozietateak Laudio eta Amurrioko (Araba) eta Orozkoko (Bizkaia) udal-mugarteetan sustatutako Larragorri Parke Eolikoaren proiektuaren aurretiazko administrazio-baimena ematen duena

Espedientea: 01-GE-Y-2021-00005 eta 48-GE-Y-2021-00005.

Aurrekariak

Lehenengoa.– 2021eko urriaren 26an, Green Capital Development 147 SLUk (aurrerantzean, Green Capital) aurretiazko administrazio-baimena eskatu zuen Larragorri parke eolikia egiteko Laudio eta Amurrioko udal-mugarteetan (Araba) eta Orozkoko udal-mugarteetan (Bizkaia), 115/2002 Dekretuan prozedura hasteko aurreikusitako dokumentazioarekin batera.

Bigarrena.– 115/2002 Dekretuan aurreikusitako eskumen-prozesuaren ondorioetarako, iragarria argitaratu zen 2021eko abenduaren 24ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 2022ko urtarrilaren 3ko ALHAOn eta 2021eko abenduaren 24ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta ez zen lehiarako eskaerarik aurkeztu. Beraz, Green Capital sozietateak aurkeztutako aurreproiektua hautatu zen Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariaren 2022ko martxoaren 1eko Ebazpenaren bidez. Ebazpen horren bidez, Laudioko (Araba) eta Orozkoko (Bizkaia) udal-mugarteetan Larragorri parke eolikorako aurretiazko administrazio-baimena eskatzeko eskumen-prozedura ebatzi zen.

Hirugarrena.– 2023ko azaroaren 30ean, proiektu estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariaren 2023ko azaroaren 20ko Iragarkia argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baitziren Larragorri parke eolikia eta haren ebakuazio-azpiegitura proiektuaren aurretiazko administrazio-baimena eta Ingurumen-inpaktuaren adierazpena lortzeko eskaerak, Arabako Lurralde Historikoko Laudio eta Amurrioko udal-mugarteetan eta Orozkoko udal-mugarteetan (Bizkaiko Lurralde Historikoa). Halaber, 2023ko abenduaren 18ko Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta 2023ko azaroaren 30eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Makatzak Arratiako Ekologistak Elkarteak, EH Bildu Amurrio Udal Taldeak eta hainbat partikularrek aurkeztu zituzten alegazioak.

Jarraian, jendaurreko informazio-aldian eta espedientea izapidetzean aurkeztutako alegazioen edukia laburbiltzen da:

- Lehia-izapidean herritarrek parte hartzeko ezintasuna.
- Hirigintza-izapideak ez betetzea.
- Bateriaezintasuna Amurrioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearekin (2023ko urtarrilaren 30eko ALHAO).
- Proiektuaren eta Aiaraldeko Plan Estrategikoen zirriborroaren arteko bateraezintasuna.

– Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialik eza edo bateraezintasuna.

– Ingurumen-inpaktuaren azterketa ez da nahikoa edo ez da adierazgarria alderdi hauetan: inguruko eraikinen zarata-mailen analisia, datu meteorologikoak, itzal tindagarriaren efektua, abifaunaren eta kiropteroen azterketa, anfibioei, hezeguneei, kultura-ondareari, paisaia-inpaktua, sarbideak, lur-mugimenduak eta soberakinak...

– Onura publikoko mendiei eragitea.

Laugarrena.– Jendaurreko informazioaren izapidearekin batera, kontsulta egin zitzaien eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei, oinarritzko proiektuari eta Ingurumen-inpaktuaren azterlanari buruz. Zuzenean eragindako ondasunak eta eskubideak dituzten administrazio edo erakundeen kasuan, dagokion separata bidali zen, baldintza teknikoak emateko.

Kontsulta egin zitzaien Audio, Amurrio eta Orozkoko udalei; Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzari, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzari, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzari; Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzari (eta Mendi Zerbitzua), Natura Ingurune, Kultura eta Kirol Zuzendaritzari eta Bide Azpiegituren Zuzendaritzari; Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ingurune eta Nekazaritza Sailari eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailari; eta URA-Uraren Euskal Agentziari, Ihoberi, Itelazpi eta Informazio Geografikoaren Zentro Nazionalari.

Halaber, separata bidali zitzaizkien hurrengo hauei: i-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU, Red Eléctrica de España SAU, Exolum Corporation SA, Telefónica de España SA.

Eta Ingurumen-prozeduran interesdun direnei: Ekologistak Martxan, Eguzkizaleak, SEO Birdlife, Grupo Ecologista GAIA eta Arabako Mendiak Aske.

Bosgarrena.– Kontsultak eta jendaurreko informazioaren izapidea amaituta, jasotako alegazio eta txostenen hitzez hitzeko kopiak bidali zitzaizkion sustatzaileari, erantzuna eman ziezaien.

Laudioko Udalak jakinarazi du proiektua bateraezina dela udal-plangintzarekin eta lurraldea antolatzekeko tresnekin, erakundearen mendeko ondasunei eragindako afekzioak identifikatu ditu eta baldintza tekniko bat proposatu du. Sustatzaileak erantzun du Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean aurreikusitako izapideak hasi dituela instalazioa lurzoruaren erabilerekin bateragarri egiteko, ondorengo fase batean (eraikuntza-proiektuan) zehazki identifikatuko dituela afekzioak eta okupazio-kanonak eta kudeatuko dituela beharrezko baimenak; baldintza teknikoekin ados dagoela adierazi du.

Amurrioko Udalak alegatu duenez, Ingurumen-inpaktuaren azterketan ez dago jasota Amurrioko Udalak «aurretiazko kontsulten» izapidean bidalitako txostenari emandako erantzuna, eta horrek urratu egingo luke Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren Ebazpenean ezarritakoa. Ebazpen horren bidez, «Larragorri» PE proiektuaren Ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egin zen Audio, Orozko eta Amurrioko udalerrietan (Araba eta Bizkaia), eta txosten hori kontuan hartu ez denez, ezin da proiektuaren Ingurumen-inpaktuaren adierazpena ebatzi. Ingurumen-azterlanean kontuan hartuko ez liratekeen eta Amurrioko HAPOk debekatutako eremuetan dauden obra-etxola batzuk identifikatzen ditu proiektuan. Uste du ez direla kontuan hartu izapidetzen ari diren beste parke eoliko batzuekiko sinergia- eta metatze-ondorioak, ez eta Amurrioko hiribilduko Paisaiaren Ekintza Plana ere, eta beste alegazio batzuk egin ditu, hainbat elkarrek eta pertsonak jendaurreko informazioaren izapidean aurkeztutakoekin bat datozenak. Sustatzaileak uste du izapidetutako Ingurumen-dokumentazioak irismen-dokumentuan planteatutakoari erantzuten diola; adierazten du aipatutako etxolak proiektutik kentzen direla eta eraikitako edo izapidetze aurreratuan dauden proiektuen sinergia-ondorioak kontuan hartu direla. Udalak egindako gainerako alegazioei ere erantzun die.

Orozkoko Udalak Ingurumen- eta hirigintza-arloko hainbat alegazio egin ditu, hainbat elkarrek eta pertsonak jendaurreko informazioaren izapidean aurkeztutakoekin bat datozenak.

Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak parkearen irismen-dokumentua egiteko egin zuen txostenera jotzen du, hura eguneratu beharrik gabe, uste baitu Ingurumen-inpaktuaren azterketak beharrezko alderdiak jasotzen dituela. Green Capital ados dago.

Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak uste du ez direla nahikoak abifaunaren eta kiropteroen gaineko eraginari dagokionez proposatutako neurriak eta zaintza-plana, ez eta lehengoratzeko-proiektua ere, gehitu beharko liratekeen alderdiak adierazita; natura-ondareko gune babestuei dagokienez, ados dagoela adierazi du. Sustatzaileak uste du Ingurumen-inpaktuaren azterketa egokia dela gai horietan, baina prest dago Zuzendaritzaren proposamenak txertatzeko, Ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpena lortu ondoren.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak jakinarazi duenez, Ingurumen-inpaktuaren azterketak ez du zehazten proiektuaren eragin-eremuan (ebakuazio-linea, funtsean) eraikinak dauden, hala nola ospitaleak, ikastetxeak, zaharren egoitzak eta pertsonak egon ohi diren eremuak (parkeak, aire zabaleko jolasak, etab.), populazioarekiko eragina aztertzen denean, ez eta eremu magnetikoaren modelizazioaren ondoriozko balioak ere, eta hainbat araudi gogorarazi ditu, proiektua ingurune biziaren ongizatearen eta osasunaren babesarekin bateragarri egiteko. Green Capital elkarteak, bere erantzunean, proiektutik hurbilen dauden eraikinak (ospitaleak, ikastetxeak...) identifikatu ditu, eta «Larragorri PEa ebakutzeko 30 kV LMT aurreproiektua» aipatzen du eremu magnetikoei dagokienez, eta Zuzendaritzak aipatutako araudia betetzearekin ados dagoela adierazi du.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen du informazioa osatzea proiektuak eragindako lursailen lotutako ustiategi zehatzei buruz, bai eta horiek gauzatzearen ondorioz lurzatiak zatitzeko aukerari buruz ere. Sustatzaileak gai horiei buruzko txosten osagarria aurkeztu du.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza ados dago Ingurumen-inpaktuaren azterketan jasotako informazioarekin, eta bertan proposatutako neurriak betetzeko eskatzen du.

Arabako Foru Aldundiko Natura Ingurunearen Zuzendaritzak, Ingurumen-inpaktuaren azterketa aztertu eta, oro har, egokitzen jo ondoren, beharrezkotzat jotzen du zenbait betekizun gehitzea, hala nola Ingurumen-integratze neurrien aurrekontu osoa, zuhaixka-estalkia eta lursaila lehengoratzeari buruzko gaiak, ebakuazio-linearen aireko zatia lurperatzea sai zuria babesteko eremuetatik gertu egoteagatik, obra hasi aurreko azterketa gehigarriak eta abifauna eta kiroptero-fauna babesteko neurriak... Era berean, gogorarazi du bere eskumeneko baimen sektorialak obrak hasi aurretik eskatu beharko direla. Sustatzaileak bere gain hartzen ditu proposatutako neurri batzuk, eta Ingurumen-organoaren erabakira jotzen du neurri gehienetan.

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Zuzendaritzak eragin arkeologikoko zenbait puntu identifikatu ditu, eta baldintzak ezarri ditu. Green Capital enpresak baldintzak onartu ditu linea elektrikoa desbideratzeko aukerari dagokionez, eta gainerakoetan Ingurumen-organoaren erabakira jo du.

Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Zuzendaritzak zenbait gogoeta egin ditu proiektuak errepide-sarean izango duen eraginari buruz, bereziki A-4601 errepidetik izango duen sarbideari dagokionez. Baldintza teknikoak ezarri ditu obra gauzatzeko eta garraio bereziarako sarbidea izateko, eta errepideen babes-eremuari eragiten dion edozein obra egin aurretik zuzendaritza horretako Errepide Zerbitzuari eskatu beharko zaion polizia-baimena gogora dakar. Sustatzaileak baieztatu du dagokion baimena eskatuko duela Ingurumen-inpaktuaren adierazpena aldekoa bada.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumenaren Kalitatearen Zerbitzuak, hainbat gogoeta egin ondoren, ondorioztatu du proiektua nabarmen bideraezina dela Ingurumen-arrazoiengatik, eta, beraz, aurkako txostena eman du.

Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuak txosten espezifiko bat bidali du, Euskal Autonomia Erkidegoan Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak kudeatzeko baterako planari buruzkoa (BFaren 83/2015 Foru Dekretua). Txosten horretan, parke eolikoak espezie mehatxatuetan (sai zuria, karramarro iberiarra eta miru gorria) duen eraginari buruzko gogoeak egiten dira, eta ondorioztatzen da zaila dela biodibertsitatea babestea eta proiektu horren aurreko administrazio-baimena ematea.

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuak berresten du proiektuaren eremuan ez dagoela babes berezi eta ertaineko ondasun arkitektonikorik, eta baldintza batzuk ezartzen ditu ondare arkeologikoari dagokionez, hala nola proiektu arkeologiko bat egitea. Green Capitalak baldintzak onartu ditu.

Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak, URA-Uraren Euskal Agentziak eskatuta, baldintza tekniko batzuk ezartzen ditu, eta gogorarazten du arroko erakundearen alde aurreko administrazio-baimena eskatu beharko dela bere eskumeneko lurralde-eremuan eta eremu materialean. Sustatzaileak baldintzak onartzen ditu.

Ihobek jakinarazi du, proiektuaren Ingurumen-inpaktuaren azterketatik ondorioztatzen den bezala, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan dauden lurzati batzuk daudela, eta, beraz, lurzoruen kalitate-adierazpen bat izapidetu beharko dela, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legearen 23. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada; gainera, baldintzak ezartzen ditu. Green Capital ados dago.

Red Eléctrica de España SAUK jakinarazi du ez dagoela bere jabetzako instalaziorik proiektuak eraginda.

Telefónica de España SAK telekomunikazio-lineekiko paralelismoei eta gurutzatzei buruz indarrean dagoen araudia bete behar dela gogorazten du, eta, bereziki, goi- eta behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoetara. Sustatzaileak baldintzak onartzen ditu.

Ekologistak Martxan elkarteak Ingurumen-alegazio batzuk egin ditu aerosorgailuen gehieneko potentziari buruz, Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuak Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren irismen-dokumentua zehazteko egindako txosten negatiboari buruz, parke eolikoak sai zuriarengan, sai arrearengan, kiropteroengan eta abarretan duen eraginari buruz, bai eta arkeologia- eta natura-ondareari buruz ere.

Seigarrena.– 2024ko apirilaren 17an, Ingurumen-ebaluazioaren espedientea aurkeztu zen Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen-organoa den aldetik (espediente horri EIAO-139 erreferentzia esleitu zitzaion), azter zezan, honako hauek barne hartuta: proiektuaren dokumentazio teknikoa eta Ingurumen-inpaktuaren azterketa, jendaurreko informazioaren eta kontsulten izapideetan jasotako alegazioak eta txostenak, eta sustatzaileak horiei buruz egindako gogoetak.

Zazpigarrena.– 2024ko abuztuaren 6an, Ingurumen-organoak egindako errekerimenduei erantzunez sustatzaileak bi aldiz aurkeztutako dokumentazioa gehitu ondoren, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak osotzat jo zuen eskaera.

Zortzigarrena.– 2025eko urtarrilaren 15ean, Ingurumen Administrazioaren zuzendariak Ingurumen-inpaktuaren adierazpena (aurrerantzean, IIA) egin zuen Orozkoko (Bizkaia) eta Lau-dioko eta Amurrioko udal-mugarteetan (Araba) Larragorri parke eolikoa (25MW) eta hari lotutako azpiegiturak egiteko Green Capital Development 147 SLUK sustatutako proiekturako; ebazpena 2025eko martxoaren 24ko EHAA (57. zk.) argitaratu zen.

Zuzenbideko Oinarriak

Lehenengoa.– Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saileko Deskarbonizazio Zuzendaritza da espediente hau izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena.– Espedientea izapidetzean, honako hauetan ezarritako izapideak bete dira: 24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 1/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 1955/2000 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, Energia elektrikoaren instalazioen garraioa, banaketak, merkaturatzeko eta hornidurako jarduerak eta baimentze-prozedurak arautzen dituenak; eta 115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan parke eolikoaren bidez energia eolikitik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena.

Hirugarrena.– Aurkeztutako alegazioei dagokienez, hirugarren aurrekarian laburtuta daude, bai eta Ingurumen-izapideetan interesa duten toki-administrazioek, pertsonak eta erakundeek egindakoei dagokienez ere, laugarren aurrekarian adierazten den bezala; alegazioen edukia, sustatzaileak emandako erantzunak, proiektuaren Ingurumen-inpaktuaren adierazpena eta Arabako eta Bizkaiko industria-administrazioa lurralde-ordezkaritzek egindako txostena aztertuta, honako hau adierazi behar da:

1.– Lehia-izapidean publikoki parte hartzeko ezintasunari dagokionez, adierazi behar da prozeduraren fase hartan baimendutako proiektua eta proiektua gauzatuko duen erakundea zein izango diren baino ez dela argitzen. «Grosso modo» esleipen administratiboko prozedura bat da, balizko esleipendun batek edo batzuek parte har dezaketena. Argi dago prozedura hartan agertzen ez ziren hirugarrenak ezin direla interesduntzat hartu. Tratamendua obra publikoaren esleipenarenaren antzekoa da; izan ere, esleipenduna zehazteko, ez dira kontuan hartzen obra horren garapenak eragin ditzakeen pertsonak.

Horrek ez du esan nahi parke eolikoaren instalazioaren garapenak eta egikaritzeak eragin diezaiekeen parke eolikoaren izapidetzean parte hartu eta esku hartu ezin dutenik. Baina parke eolikoaren aurreproiektu egokia aukeratu ondoren izango da, 11/2002 Dekretuaren 7. artikulua ezartzen duen bezala.

2.– Hirigintza-izaerako eta lurralde-antolamenduko alegazioei, Amurrioko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorri eta Aiaraldea eskualdeko Plan Estrategikoaren zirriborroari dagokienez, adierazi behar da sustatzaileak dagokion Plan Berezia egitera lotzen dela, Lurzoruari buruzko 12/2007 Legean xedatutakoaren arabera, eta plan horren Ingurumen-ebaluazio estrategikoa foru-organismoak egingo duela. Izapide hori independentea da, baina osagarria proiektuaren alde aurreko administrazio-baimenarekin; azken hori, sektore elektrikoaren araudian oinarritutakoa, da ebazpen honen xedea. Nolanahi ere, zehaztu behar da baimen hau eman arren sustatzaileak proiektua gauzatzeko behar dituen baimen eta lizentzia guztiak lortu beharko dituela.

Halaber, honako hau adierazi behar da: 128/2019 Dekretuaren arabera (128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez behin betiko onesten baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak), Larragorri Parke Eolikoaren proiektuan sartutako instalazioak berariaz debekatuta ez dauden erabilerei dagozkie, aplikatu beharreko arauen II. eranskineko Erabileren Erregulazioko 2.d puntuko Erabilera Matrizaren arabera (ingurune fisikoaren antolamendua).

3.– Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialik ez egoteari edo harekin bateraezintasunik egoteari dagokionez, esan behar da 104/2002 Dekretuaren bidez onartutako Energia Eolikoaren LPSa indarrean dagoela ebazpen hau ematen den egunean, eta Larragorri parke eolikia, dituen aerosorgailuen kopuruagatik (5), ez dagoela haren aplikazio-eremuan sartuta.

Beraz, Energia Eolikoaren LPSak adierazten duen bezala, haren aplikazio-eremuan sartzen ez diren parke eolikoek ezarritako administrazio-baimenaren prozedura bete behar dute, bai eta kasu bakoitzean aplikatzekoa den Ingurumen-inpaktua ebaluatzeko nahitaezko prozedura ere, jarraitutako espedientean egin den bezala.

4.– Alegatzen diren alderdietan Ingurumen-inpaktuaren azterketa nahikoa ez izateari edo adierazgarritasun faltari dagokionez, Ingurumen-organoak nahikotzat jo du Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko, IIAn ezartzen diren ñabardurekin eta baldintzekin.

5.– Ingurumen izaerako alegazioei dagokienez, adierazi behar da horiek kontuan hartu direla Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak formulatutako IIAn. Bertan, parke eolikoa gauzatzeko, ustiatzeko eta desegiteko beharrezkoak diren baldintzak, babes-neurriak, neurri zuzentzaileak eta konpentsazio-neurriak jasotzen dira, bai eta Ingurumena Zaintzeko Programa, Ingurumena Lehengoratzeko eta Paisaia Integratzeko Proiektua eta Konpentsazio Plana ezartzeko beharrezkoak direnak ere.

6.– Arabako eremu geografikoan Onura Publikoko Mendien gaineko eraginari dagokionez, Mendiei buruzko 11/2007 Foru Araua hartu behar da kontuan. Arau horrek adierazten du foru-organo eskudunak baimena eman behar duela mendi horiek erabiltzeko edo okupatzeko, Arabako Foru Aldundiko Natura Ingurunearen Zuzendaritzak jakinarazi zuen bezala. Bizkaiari dagokionez, Mendiei eta Naturgune Babestuen Administrazioari buruzko martxoaren 20ko 3/2007 Foru Arauak aldatutako ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauak Nekazaritzako foru diputatuaren dagokion baimena eskatzen du.

7.– Amurrio hiribilduko Paisaiaren Ekintza Planari dagokionez, IIAk eraginpeko paisaia-inguruneak eta –mugarriak identifikatzen ditu, katalogatutako paisaia bakar bati ere ez zaiola eragiten zehazten du, neurri zuzentzaile batzuk ezartzen ditu paisaia leheneratzeko eta obrak integratzeko, eta exekuzio-proiektuan obren eragina jasango dutela aurreikusten den azalera guztiak Ingurumena Lehengoratzeko eta Paisaia Integratzeko Proiektu baten sartzea, bai eta lehengoratzek arrakasta izango duela ziurtatzeko behar diren neurriak hartzeko ere.

Laugarrena.– Proiektuak ingurumenean izan dezakeen inpaktua kontuan hartuta, Ingurumen-inpaktuaren azterketan, ebazpen–zatiaren bigarren puntuan, proiektuaren baldintzak eta ingurumenaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta konpentsatzeko neurriak ezarri dira. Hona hemen neurri horiek, laburbilduta (ez zehatz–mehatz):

1.– Baldintza orokorrak.

2.– Proiektuan aldaketak egiteko proposamena.

Azpiestazio elektrikoaren inguruan lineak metatzen direla eta sai zuriaren lurralde bat hurbil dagoela kontuan hartuta, A-635 errepidea gurutzatzeko haren azpiko pasabidea erabili beharko da, salbu eta justifikatzen bada alternatiba hori ez dela bideragarria ikuspuntu teknikitik.

3.– Fauna babesteko neurriak.

Aerosorgailuei detekziorako, disuasio akustikorako eta geldialdirako moduluak dituzten sistema automatikoak jarriko zaizkie.

Eraikitze baimena lortu ondoren, sustatzaileak miru gorriak, sai zuriak eta sai arreak aerosorgailuen kokalekuaren inguruan espazioa nola erabiltzen duten aztertzen jarraitu beharko du, datuak biltzen jarraitzeko. Azterlanak gutxienez urtebete iraun behar du, eta miruaren (udazken–negua) eta sai zuriaren (udaberri–uda) migrazio-garaiko laginketak areagotuko dira.

Eraikitze baimena lortu ondoren, sustatzaileak kiropteroen babesleku garrantzitsuen prospekzioari buruzko azterketarekin jarraitu beharko du, kokalekuaren inguruko 5 kilometroko erradioan, populazio horien datuak biltzen jarraitzeko.

Kiropteroek aerosorgailuekin talka egiteko arriskua minimizatzeko, aerosorgailuak geldirik egongo dira urte bakoitzeko maiatzaren 1etik irailaren 31ra bitartean, eguzkia sartu baino ordu-bete lehenagotik eguzkia sartu eta lau ordu geroago arte, baldin eta aldi berean 14°C-tik gorako tenperatura-baldintzak eta aire-sorgailuaren errotorearen altuerako haize-abiadurak 6 m/s-tik beherakoak badira eta euririk eta lainorik gabeko egunak badira.

A-635 errepidea gurutzatzeko linea elektrikoa lurperatu ezin bada, abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuan adierazitako elektrokuazioaren eta talkaren aurkako prebentzio-neurriak hartu beharko dira (1432/2008 Errege Dekretua, abuztuaren 29koa, goi-tentsioko linea elektrikoetan hegazti-fauna talken eta elektrokuazioen aurka babesteko neurriak ezartzen dituen). Ebakua-zio-linea elektrikoaren euskarrietarako, hiruzuloaren ordezkari ganga motako edo antzeko gurutzeta bidezko diseinua hartuko da.

Parke eolikora sartzeko pistak hesiak jarriko dira areketan eta herpetofaunarentzako pasabideetan.

4.– Batasunaren eta eskualdearen intereseko flora, landaredia eta habitata babesteko neurriak.

Egikaritze-proiektuan, aerosorgailuen posizioa behar adina egokituko da, alferrikako afekzio oro minimizatzeko zuhaitz-landaredian, Batasunaren intereseko habitatetan eta katalogatutako flora-populazioetan, bai plataformak instalatzeagatik, bai zangetan edo erantsitako bideetan.

5.– Airearen, lurzoruen eta lurrazaleko eta lurpeko uren kalitatea babesteko neurriak.

6.– Zaraten ondorioak gutxitzeko neurriak.

7.– Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruekin lotutako neurriak.

Sortutako zarata-mailen jarraipenetik ondorioztatzen bada nukleoren batean lege ezarritako atalaseetako bat gainditzen dela, organo substantiboari eta eragindako udalari jakinaraziko zaie, eta eragindako aerosorgailuei prebentziozko geldialdia egingo zaie.

8.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

9.– Kultura-ondarea babesteko neurriak.

Proiektuko obrei ekin aurretik, balorizazio-zundaketen esku-hartze arkeologiko bat egin beharko da San Bartolome baselizaren inguruan eta Kukutza inguruko gailur-lerroko terrazetan.

10.– Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruekin lotutako neurriak.

Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruekin inbentariatutako lurzatiak (01036-00082 eta 01036-00088) indusketa-lanetan, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean kasu horietarako xedatutakoa beteko da.

11.– Paisaia lehengoratzeko eta obrak integratzeko neurriak.

Exekuzio-proiektuak ingurumena lehengoratzeko eta paisaia integratzeko proiektu bat izan beharko du. Gainera, hasierako lehengoratzearen ondorengo 5 urteetan instalatutako landare-estalkia zaintzeko eta mantentzeko kostuaren aurrekontua jaso beharko du, eta 5 urtean behin lehengoratutako azalaren bilakaera ebaluatuko da eta lehengoratzeko arrakasta izango duela ziurtatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira.

12.– Garbiketa eta obren akabera.

13.– Konpentsazio-neurriak.

Sustatzaileak konpentsazio-plan bat izan beharko du, honako hauek jasoko dituenak:

a) Ezabatutako natura-ondarearen baliokideak diren konpentsazioak ezartzea.

b) 5 GPS–GSM igorle eskuratzea Arabako eta Bizkaiko foru-aldundietan basafloa eta basafauna kudeatzeko eskumena duten organoen eskura, miru gorria eta inguruko fauna mehatxatutako beste espezie batzuk markatzeko.

14.– Jarduera uztea.

Eteteko eta eraisteko fasean, leheneratzeko proiektu espezifiko bat aurkeztu behar du sustatzaileak, eta proiektu horrek ingurumenaren arloan eskumena duten organoen txostena beharko du.

15.– Ingurumen-aholkularitza.

16.– Jardunbide egokien sistema bat ezartzea.

Era berean, ingurumena zaintzeko plana egin beharko da, eta baldintza-agirian txertatuko da, Ingurumen-inpaktuaren azterketan proposatutakoaren arabera, gutxienez honako kontrol hauek barne hartuta:

1.– Obraren okupazio-mugak kontrolatzea.

2.– Parke eolikoaren funtzionamendu-fasean faunaren gaineko eraginak kontrolatzea.

3.– Obrek dirauten bitartean, Batasunaren eta eskualdearen intereseko floraren, landarediaren eta habitaten gaineko eraginak kontrolatzea.

4.– Airearen, lurzorua eta lurrazaleko eta lurpeko uren kalitate-kontrola.

5.– Zarataren kontrola.

6.– Leheneratzearen eta konpentsazio-neurrien arrakasta kontrolatzea.

7.– Gorabeheren erregistroa.

8.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

9.– Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak bidaltzea.

Ingurumena Zaintzeko Planari dagozkion txostenak Bizkaiko Industria Administrazioako Lurralde Ordezkaritzara bidali beharko dira, proiektua baimentzeko instrukzio-organo gisa.

Bosgarrena.– Larragorri parke eolikoak sarbide- eta konexio-baimena du, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUk 2023ko martxoaren 29an emana.

Seigarrena.– Sektore Elektrikoari buruzko 24/2013 Legearen 53.7 artikulua adierazten du administrazio publiko eskudunak baimena ukatu ahal izango duela soilik aplikatu beharreko araudian aurreikusitako baldintzak betetzen ez direnean edo sistemaren funtzionamenduan eragin negatiboa duenean.

Adierazitako oinarri juridikoekin eta aplikazio orokor eta konkurrenteko beste batzuekin bat etorritik, Deskarbonizazio zuzendariak honako hau

EBAZTEN DU

Lehenengoa.– Aurretiazko administrazio-baimena ematea Larragorri parke eolika egiteko proiektuari, Laudio eta Amurrioko udal-mugarteetan (Araba) eta Orozkon (Bizkaia), Green Capital Development 147 SLUk sustatuta.

Proiektu horrek instalazio hauek ditu:

- 25 MW-eko parke eolika, 5 MW-ko potentzia unitarioko 5 aerosorgailuk, dorre meteorologiko batek eta aerosorgailuen arteko 30 kV-ko konexio-azpiegitura elektrikoak osatua, Laudio, Amurrio eta Orozko udal-mugarteetan.

- 30 kV-ko ebakuazio-linea, zirkuitu bikoitzekoa, Laudioko udalerritik igaroko dena, parke eolikitik Laudioko 30 kV-ko TAE azpiestazioraino, hori ere Laudio kokatua. Linea 5178 metro luze izango da, eta lurpetik igaroko da erabat, salbu eta, Ingurumen-inpaktuaren adierazpenean ezartzen den bezala, A-635 errepidearekiko bidegurutzean lurperatu ezin bada. Kasu horretan, aireko tarte bat egongo da AP1 euskarriaren eta AP2 euskarriaren artean, 158 metrokoa.

- Larragorri TZ, 663 m²-koa, Laudioko udalerrian kokatua. Larragorri parke eolikitik Laudio 30 kV-ko TAE azpiestaziora doan energia ebakutatzen da bertatik.

I-DE, Redes Eléctricas Inteligentes SAUren jabetzako Laudioko 30 kV-ko transformazio-azpiestazio elektrikoa zerbitzuan dagoen instalazio bat da, eta ebazpen honen irismenetik kanpo geratzen da.

Aldez aurreko administrazio-baimen hau honako baldintza hauekin ematen da:

1. Eraikitzeke administrazio-baimena 15 hilabeteko epean eskatu beharko da, ebazpen hau jakinarazten denetik zenbatzen hasita.

2. Exekuzio-proiektua Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak 2025eko urtarrilaren 15ean egindako eta 2025eko martxoaren 24ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (57. zk.) argitaratutako Ingurumen-inpaktuaren adierazpenean (IIA) ezarritako baldintzetara, babes-neurrietara eta konpentsazio-neurrietara egokitu beharko da.

3. Onartzeko aurkeztutako proiektuak elektrizitateari eta industriari buruzko legeriaren arabera aplikatu beharreko industria-segurtasuneko eta –kalitateko arauak bete beharko ditu, eta, instalazio elektrikoari aplikatu beharreko araudian adierazitako dokumentu eta zehaztapenez gain, kokalekuan 12 hilabete baino gehiagoz egindako neurketa eolikoen emaitzak jaso beharko ditu, behar bezala justifikatuta.

4. Martxan jartzeko epea bi urtekoa izango da, ebazpen honen datatik hara. Epe hori igaro eta instalazioa ustiatzeko baimena eskatu ez bada, ebazpen hau iraungitzat jo ahal izango da, hargatik eragotzi gabe sustatzaileak abenduaren 27ko 8/2023 Errege Lege Dekretuaren 28. artikuluan xedatutakoa betetzea (8/2023 Errege Lege Dekretua, abenduaren 27koa, Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazketatik eratorritako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko eta lehortearen ondorioak arintzeko neurriak hartzen dituen, behin betiko ustiapen-baimena lortzeko mugarri administratiboaren hedapenari dagokionez).

5. Baimen hau obra egiteko beharrezkoak diren baimen, lizentzia eta baimenetatik aparte ematen da, baita aldi bereko xedapen aplikagarrien ondoriozkoetatik aparte ere.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Trantsizio Energetikoaren sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearen 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 5a

Deskarbonizazio zuzendaria

GUILLERMO ALLENDE ARANGUIZ